

EDALONTZIA DISEINATZEKO LEHIAKETAREN OINARRIAK

Gasteizko jaietarako ‘Plastikorik ez’ programako edalontzia berritzeko asmoz, Vital Fundazioak eta Vitoria-Gasteizko Udalak lehiaketa honetarako deialdia egiten dute. Oinarriak honako hauek izango dira:

1. PARTE-HARTZAILEAK

16 urtetik gorako artistek hartu dezakete parte lehiaketa honetan, baldin eta Arabako Lurralde Historikoan jaio badira edo bertan bizi badira edo lanbide-jardueran bertan aritzen badira.

Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkez dezake, originala eta inoiz aurkeztu gabea (beste lehiaketa batzuetan aurkeztu gabea, eta ezin du izan egile-eskubideei lotutako lanen erreprodukziorik, ez osorik ez partzialki).

2. BALDINTZA TEKNIKOAK

Gaia jaiarekin eta gure lurraldeko ingurumenaren jasangarritasunarekin eta babesarekin lotuta egongo da. Edalontzia hiriko jai ezberdinetan erabili ahal izango da.

Teknika digitala izango da, teknika librean gauzatua eta parte hartzeko oinarri hauetan erantsitako plantillari aplikatua. Baldintza horiek betetzen ez dituen edozein lan baztertu egingo da.

Lana sinatu gabe aurkeztu beharko da, eta artxiboaren izenean lanaren izenburua edo leloa adieraziko da.

Formularioan adierazitako eremu guztiak behar bezala bete beharko dira. Gorabeheraren bat izanez gero, erakundea pertsonarekin harremanetan jar daiteke gorabehera hori konpon dezala eskatzeko. Konpondu ezean, pertsona berehala deskalifikatuko da lehiaketatik.

3. LANAK JASOTZEA

Lanak formatu digitalean aurkeztu beharko dira: pdf eta formatu bektorialean (.ai edo .psd), eta www.fundacionvital.eus webgunean jarritako formularioan aurreikusitako epean bidaliko dira.

Lanak jasotzeko azken eguna: ekainak 17, astelehena, eguerdiko 12:00etan
Ebazpena, ekainaren 20an.

4. SARIAK

Sari bakarra ezarri da irabazlearentzat, 1.000 €-koa.

Aukeratutako diseinua Gasteizko jaietako 'Plastikorik ez' programako edalontzian eta hiriko beste ospakizun batzuetan erabiliko da. Aipatutako programa horren helburua erabilera bakarreko edalontzien erabilera masiboa saihestea da.

Lan irabazleek aldaketak edo egokitzapenak izan ditzakete, antolakuntzak hala erabakiz gero, diseinua etorkizuneko beharretara egokitzeko, hala nola babesleak sartzeko edo elementuren baten ikusgarritasuna hobetzeko, betiere egilearen onespena izanda.

5. EPAIMAHAIAREN OSAKETA

Arte, komunikazio, kultura eta ostalaritzako profesionalak osatuko dute epaimahaia, eta aurkeztutako lanen artean erakusgai jarriko direnak aukeratzeaz eta sarituak kalifikatzeaz arduratuko da. Bere epaia apelaezina izango da.

6. ONARPENA

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek erabat onartu direla, baita epaimahaiaren erabakiak ere, eta uko egin zaiola edozein lege-errekamaziori.

Hori ez betetzeak hurrengo edizioetatik baztertzea ekarriko du.

7. DATUEN BABESA

Datu pertsonalak babesteari buruzko Espainiako eta Europako araudiekin bat etorriz, zera jakinarazten dizugu, ematen dizkiguzun datuak eta zurekin harremana garatu bitartean sortzen diren gainerako datuak, FUNDACION VITAL FUNDAZIOAK tratatuko dituela, kontaktuari eta komunikazioari eusteko, Fundazioak sustatutako programak, jarduerak eta proiektuak kudeatzeko eta egiten ditugun jarduera, programa eta proiektu berriei buruzko informazioa bidaltzeko. Antolatzen ditugun jarduera eta ekitaldietan, argazkiak eta/edo bideoak egin daitezke. Zure datuen tratamendua zure baimenean eta gure interes legitimoan oinarritzen da. Hirugarrenei datuak jakinarazten dizkiegu. Datuen nazioarteko transferentziak egiten ditugu. Programa jakin batzuetan, bereziki babestutako datuak trata daitezke. Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatu ditzakezu, baita beste eskubide batzuk ere, www.fundacionvital.eus webgunean ikus dezakezun informazio gehigarri eta osoan zehazten den bezala.

Edozein informazio jasotzeko edo oinarriak eskatzeko, jo WEB orri honetara: fundacionvital.eus edo **Vital Fundazioa**, Aiztogile kalea 24 - 01001 Vitoria-Gasteiz, tel.: 945 06 43 68, emaila: actividades@fundacionvital.eus